



## LURRA ETA EMAKUMEAK BEREN BURUA DEFENDATZEN

Beste fitxa batzuetan jada aipatu dugu nolako lotura dagoen gure gailu elektronikoen, gure kontsumo-ereduaren eta gure kontsumo-eredu horrek munduko beste toki batzuetan duen eraginaren artean. Lotura horiek funsezko bi premisa dituen sistema ekonomiko, sozial eta kultural batean oinarrituta daude: lehen premisa da uste izatea, hazkunde ekonomikoa mugagabea dela, beste modu batean esanda, mugarrak gabe ekoitz dezakegula, gure planeta amaikorra dela kontuan hartu gabe; bigarren premisa da uste izatea naturarekin eta emakumeekin nagusitasun- eta doakotasun-harremanak ditugula eta, horregatik, gauza/objektu bihurtzea: naturak lehengaiak ematen dizkigu eta sistemari sobratzen zaizkion hondakinak jaso behar ditu eta, halaber, emakumeek doako ekoizpen-lana eginez eskulana sortzen dute, eta sistemarako kontsumitzaileak dira, bai eta adinagatik, gaixotasunagatik edo bestelako egoerengatik jada ekoitzi ezin duten gorputz ahulen zaintzaileak ere.

Sistema horrek, kapitalismoak (patriarkatuaren adierazpena), bizitza kapital-metaketaren mende ipintzen duen garapen-eredu bat zabaltzen eta defendatzen du. Esate baterako, **estraktibismoan oinarritutako ekonomiek lehengai-hornitzaire soiltzat hartzen dute natura, menderagarritzat, ustiagarritzat, hirien premien mendekotzat, eta naturaren irudi hori sustatzen dute;** gainera, nagusitasun-harreman hori gizarte osora zabaltzen da: gizakiak eskulan merketzat hartzen dira eta, horrenbestez, oinarrizko giza eskubideak urratzen dira.

Aldi berean, erauzketan oinarritutako eredu horrek hautsi egiten ditu komunitateek lurrardearekin dituzten loturak, lurraldea egoteko eta izateko toki den aldetik, biziari eusteko, identitateak eta mundu-ikuskerak sortzeko eta transmititzeko eta harremanak birsortzeko leku den aldetik. Natura desjabetze- eta hondatze-prozesu horrek eragin handiagoa du emakumeengan, batetik, ez direlako egoten lurraren erabilerari buruzko erabakiak hartzeko guneetan eta, bestetik, identitatea zaintzeko eta transmititzeko eginkizuna eman ohi zaielako. Landatzeko lurrik gabe, nor izateko aukerarik gabe, bizitzari eusteko lana are gogorragoa da.

**Horrez gainera, naturako ondasunak kontrolatzearekin loturiko gatazken ondorioz, emakumeen kontrako eta haien gorputzen kontrako indarkeria gora egiten du, eta horren adibide da, esate baterako, indarkeria sexuala gerra-arma gisa erabilitza<sup>1</sup>:** bi dimensio ditu fenomeno horrek: batetik, gizabanakoa menderatzen da, sexu-abusuen bitartez izua sortuz; bestetik, kolektiboei ere erasotzen zaie, komunitate etsai osoa makurrarazteko ere egiten baitira sexu-abusuak. Bi alderdi horiek ezin dira ulertu argi izan gabe emakumearen gorputza gizonen eta gizartearen jabetzatzat hartzen dela eta, horrenbestez, umilazio- eta botere-mezu bat transmititzeko baliabide gisa erabiltzen dela. Hala, gudu-zelaia trintxeretatik emakumeen gorputzetara igarotzen da.

Errealitate horri aurre egiteko, 90eko hamarkadan feminismoa ulertzeko modu bat agertu zen Boliviako aimara komunitateetan; laster, Latinoamerika osora zabaldu zen pentsamolde hori. Korronte horri *feminismo komunitario* deritzo. Feminismo komunitarioak aldarrikatzen duenez, inkoherentzia hutsa da, lurralde/lur bat ustiaketaren aurka defendatzen ari garela, bortxatutako emakumeen gorputzak kontuan ez hartzea. Eta zera defendatzen du: "lurra eta emakumeak ez gara garaitzeko lurralde bat".

Proiektu estraktibisten kontrako mugimendu feministak horiek borrokarako eta politikarako iruditeria berri bat eratu dute, emakumearen gorputza lehendabizi defendatu beharreko lurraldetza hartzentzu duena. Eta berrinterpretazio horren arabera, lurraldeen subiranotasuna eta autodeterminazioa urrunago doa, emakumeen gorputzkin lotzeraino<sup>2</sup>. Hala, mugimendu horiek agenda publikora eramatzen dute arazo hori; hots, aldarrikatzen dute ezinbestean salatu eta baztertu behar dela emakumeen gorputzaren eta naturaren ikuspegi patriarkal hori (emakumeen gorputza eta natura sakrifica daitezkeen lurraldeak direlako pentsaera). **Esangura horrek ezkutatzen duen logika botere androzentrikoan funtsatuta dago, eta naturaren eta emakumeen aurkako indarkeria hori minimizatu eta ikusezin bihurtzen du. Menderatze-dinamika horiei aurre egiteko, feminismo komunitarioaren borrokak ezinbestean itzuli nahi die eragile izateko gaitasuna naturari eta emakumeei, berriz ere subjektu politiko bihurtuta.**

<sup>1</sup> Ikus 04 fitxa: Sexu-indarkeria gatazketa  
<https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/blog/2014/10/29/sexo-indarkeria-gatazketa/>

<sup>2</sup> Gartner, Miriam: *El feminismo reactiva la lucha contra el 'extractivismo' en América Latina;*  
<http://www.lamarea.com/2014/02/17/ecuador-extractivismo-mujeres/>

Planteamendu horretan oinarrituta, emakumeen gorputzak erresistentzia-gorputz ere bihurtzen dira. Gorputz ahaldunduak eta menderakaitzak, beren lurrardeak, lurralde/lurra eta lurralte/gorputzak suntsitzen dituzten megameatzaritzako proiektuen kontrako borrokaren lehen Ieroan ipintzen direnak. Emakume asko dira nabarmenzekoak, hala nola Berta Cáceres, Máxima Acuña de Chaupe, La Puyako emakume anonimoak eta Kolonbiako wayuu emakumeak: antolatu egiten dira, lurraldea defendatzeko erresistentzia-sareak sortzen dituzte, eta lurraldeei beste modu batean begira diezaiegula eta erdigunean bizia ipin dezagula eskatzen digute.

# JARDUERA-PROPOSAMENA

## GURE GORPUTZAZ JABETZEA

Jarduera honetan naturara irtetea proposatzen dizuegu, eta zuen gorputzari erabateko arreta jartzeko unetxo bat hartzea.

*Iren kalera eta ibili, mantso ibili, besterik ez. Ipini arreta zure gorputzaren mugimenduari; bereziki, erreparatu zure oinek nola ukitzen duten lurra, nola hartzen duzun arnasa, eta nolakoak diren inguruko estimuluak. Ez ibili leku jakin batera iristeko, ibiltze hutsaz gozatzeko baizik, zure gorputzarekiko loturaz eta zure gorputzak naturarekin duen loturaz gozatzeko.*

*Ibiltzen ari zarela, erabat jabetu behar duzu horretaz guztiaz. Normalean, gorputza inertzia hutsez mugitzen dugu, mekanikoki. Paseatzean, korrika egitean, ibiltzean, ez gara jabetzen gure gorputzaz.*

*Adi erreparatu zure gorputzaren mugimenduei. Gure ekintza guztiez erabat jabetuta jokatu beharko genuke beti. Behatu zure pantaila mentaletik igarotzen den pentsamendu orori, izan zure pentsamendu guztien ikusle. Izan zure bihotzeko pantailatik igarotzen den emozio ororen lekuko. Ez zaitez sartu, ez zaitez identifikatu, ez baloratu zer den ona eta zer txarra.*

*Orain, hasi geldiro ibiltzen, oso urrats txikiak eginda. Bizkor ibiltzen hasten bazara, nahastea sortuko duzu eta atzeratu egingo zara; presa gutxiagoz ibiltzen bazara, berriz, lasterrago iritsiko zaizkizu emaitzak; jarraitu astiro ibiltzen.*

*Kontzentratu oinetan, besterik ez, eta sentitu zure oinaren zati guztiak lurra zapaltzen dutenean...*

15 edo 20 minuto geroago, egin gogoeta honako hauei buruz:

Nabaritu al duzu tentsiorik edo zailtasunik zugan?

Zer gertatu da (gertaerak, jarrerak, emozioak)?

Zerbaitek harritu al zaitu?

Nola sentitzen zara orain?

Azaldu taldeari.

## INFORMAZIO GEHIAGO IZATEKO BALIABIDEAK:

Feminismo komunitarioari buruz:

 <http://mujeresdelmundobabel.org/files/2013/11/Julieta-Paredes-Hilando-Fino-desde-el-Fem-Comunitario.pdf>

Indarkeria sexuala gerra-arma gisa erabiltzeari buruz:

 <https://es.globalvoices.org/2014/11/20/la-violencia-sexual-como-arma-de-guerra/>

Lurraldeak defendatzen dituzten emakumeei buruzko webguneak:

 <https://escuelamujerymineria.wordpress.com/page/14/>

 <https://territorioyfeminismos.org/2014/10/15/encuentro-de-mujeres-frente-al-extractivismo-y-al-cambio-climatico>

Lurraldeak defendatzen dituzten emakumeei buruzko bideoa:

 [https://www.youtube.com/watch?v=FieRWo6\\_y0A](https://www.youtube.com/watch?v=FieRWo6_y0A)

 <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/que-es-tlc/>

Villillas Ariño, María: La violencia sexual como arma de guerra. Septiembre de 2010 Quaderns de Construcció de Pau, 15.

2010eko iraila: [http://escolapau.uab.es/img/qcp/violencia\\_sexual\\_guerra.pdf](http://escolapau.uab.es/img/qcp/violencia_sexual_guerra.pdf)

-en proiektu bat

lortzearen alde

Laguntzaileak:



Jesuitek bultzatutako Fundazioa  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)



[www.gatazkarikgabekoteknologia.org](http://www.gatazkarikgabekoteknologia.org)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



Donostia-Urdaibai  
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetza Bulegoa  
Negociado de Cooperación